

BURUKO OSASUNA

HIZPIDE

Buru osasunaren inguruko esperientziak eta iritziak partekatzeko espazioa

PARTE-HARTZAILEAK

- 18 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute. **Bizilekua espainiar Estatuan** izan behar dute.
- Adin txikikoek ere guraso edo tutoreak sinatutako baimenarekin parte hartu ahal izango dute. Baimen agiria dokumentuaren amaieran dago eskuragarri.

GAIA

- Idazlanak **buru osasunaren ingurukoak** izan behar dute, eta **ikuspegi baikorra** eskaini, posible den neurrian. Errekuperazio prozesua eta buruko gaitzarekin elkarbizitzeko aukerak lantzen dituzten artikuluen bila gabiltza.
- Buru gaixotasunaren inguruko **estigmarik uko** egiten dioten eta mitoak ezabatzen laguntzen duten lanak bakarrik onartuko dira.
- Partaideak lana aurkezteko nahiago duen formatua aukera dezake: **iritzi artikulua, lehenengo pertsonan idatzitako artikulua, buru osasunarekin zerikusia duen esperientziaren bat**, etab.
- Agifesez artikulua baldintza hauek betetzen ez dituela uste badu, **ez argitaratzeko eskubidea** izango du.

LANEN AURKEZPENA

- **Nahi bezainbeste artikulua** aurkez daiteke.
- Testuak **euskaraz zein gaztelaniaz** aurkeztu ahal izango dira.
- **Argitaragarriko idazlanak** eta originalak izan beharko dute.
- **Ez da onartuko** egileak egin ez duen edo egilearen jabetzakoa ez den idazlanik.
- Parte-hartzaileak AGIFESen ekimenera aurkeztutako **lan guztien egile-eskubideen jabe bakarra** dela adierazten eta bermatzen du. Gainera, aurkeztutako lanek hirugarrenen eskubiderik ez izatearen arduradun da.

- Artikuluak **ordenagailuz idatzita** aurkeztu behar dira, edita daitekeen artxibo batean (Word edo antzekoa), eta bakoitzak **gehienez 500 hitz** izan beharko ditu gutxi gorabehera.
- Idazlanak **info@agifes.org** helbidera bidali behar dira eta honako informazioa erantsi behar da beste dokumentu batean: Izena, Abizenak, Ezizena edo testua sinatzeko erabiliko den izena, NAN zenbakia, e-maila eta telefono zenbakia.
- Agifesek **datu pertsonalen pribatutasuna** mantenduko duela bermatzen du, zozketa kudeatzeko soilik erabiliko ditu (Ikus datu pertsonalen babesaren hurrengo orria).
- **Datu pertsonalak eman nahi ez dituen partaideak** jardueran parte har dezake, baina ez du zozketan sartzeko eskubiderik izango. Zozketari uko eginez gero, lana eta nicknamea edota artikulua sinatzeko erabili nahi den izena bidaltzea nahikoa izango da.

EGITASMOAREN IRAUPENA

- Ekintza martxan egongo da 2015. urtean zehar.

AURKEZTUTAKO LANAK ARGITARATZEA

- Bidalitako artikuluak Agifesen **web orria** (www.agifes.org) argitaratuko dira, eta elkarteko **sare sozialen** eta komunikabideen bidez zabalduko dira (**newsletter** eta **aldizkaria**).
- Elkarrekin ez du artikulurik argitaratuko zozketa ez den beste alor batean egilearen baimenik gabe.

ZOZKETAK

- Parte hartzeko beharrezkoa da artikulua gain, **egilearen datuak** bidaltzea: Izena, Abizenak, Nickname-a (aukeran), NAN, e-maila eta telefonoa. Partaideak zehaztu beharko du bere izenez edo ezizenen batez sinatu nahi duen. Bere benetako izena erabili nahi ez badu, aipa dezala nola sinatu nahi duen artikulua.
- Parte-hartzaile guztien artean, **sistema aleatorio** baten bitartez, **erlaxatzeko esperientzia-bonuak** irabazteko hiru zozketa egingo dira, **espainiar Estatuko hainbat lekutan** erabiltzeko. Zozketa bakoitzeko bi (2) irabazle eta bi (2) ordezkari izango dira. Ezin bagara irabazlearekin harremanetan jarri, edo berak saria onartzen ez badu, edota ohartarazia izan den momentutik 15 egun gerora erantzunik jasotzen ez badugu, ordezkarekin jarriko gara harremanetan.
- Zozketak **ekainaren 19an, irailaren 18an eta abenduaren 18an** izango dira. Data bakoitzean aurretiko hilabeteetan argitaratutako artikuluak sartuko dira zozketan, aurreko zozketaren batean parte hartu dutenak salbu.
- **Zozketak artikulua egingo dira**; hau da, egile batek lan bat baino gehiago argitaratu badu, zozketarako izango duen txartel kopurua entregatu dituen lanen parekoa izango da.
- **Ezingo da bi aldiz saritu egile bera zozketa berean**, baina hurrengo zozketan parte hartzeko aukera izango luke artikulua gehiago argitaratuz gero.

IRABAZLEEI KOMUNIKATZEA

- Zozketa egin eta astebete geroago beranduenez, elkartearen irabazleekin jarriko da harremanetan posta elektronikoen bidez. Zehaztuko den epean erantzunik ez badago, ordezkari deituko zaie.

ONESPENA

- Parte hartzearekin batera aurrez adierazitako oinarriak onartzen ditu partaideak.

DATU PERTSONALEN BABESA

Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dizugu parte-hartzaileen datu pertsonalak AGIFESen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, 'Buruko Osasuna hizpide' lehiaketako partaideen datuak kudeatzeko helburuarekin. Partaideei espresuki ziurtatzen diegu euren datuak ez zaizkiela, inola ere, hirugarrenei emango, eta datu horiek inori laga aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela alde aurretik. Zure datuak ikusteko, zuzentzeko, edota baliogabetzeko aukera duzu Legearen arabera, eta horretarako gurekin jar zaitezke harremanetan info@agifes.org emailera edo 'Morlans Pasealekua 3, behea. 20009 Donostia' helbidera idatziz (nortasun agiri ofizialaren kopia bat bidali behar duzu idatziarekin batera).